MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2018ko ekaina · 184. zenb.

KALAPUTXI

EUSKARALDIA



Pedro Manolo

IÑARRAIRAEGI

"HERRITARREKIN LAN EGITEA EDERRA IZAN DA"



#mareaurdina naiz

AMAITU DA ERRUGBI DENBORALDIA

KAIXO ORGANIKOA!

HOTELA ERRE ZELA 60 URTE

MAREA URDINA DATOR

¡Viva la Pepa! ala Hil bedi Konstituzioa!?

NT2
PNEUMATIKOAK ETA MANTENTZE-LANAK

BIZKOR AUTOAK



Continental The Future in Motion · GOODYEAR · VREDESTEIN DESIGNED TO PROTECT YOU · DUNLOP · KUMHO TYRE

astelehenetik ostiralera 9:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00

Antzomendi industrialdea · 943 607 182 · www.nt2.es

IBARPLAS
LEIHOAK·VENTANAS

Itziarko Poligonoa, C5
20829 ITZIAR
Tel: 943 19 92 26

www.ibarplas.com
email: ibarplas@ibarplas.com

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 34 10
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 35 45
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

ZIKIÑA? ZEIN?!

- Marizikin bat naiela esaten zabiz?
- Ni zuri?! Ez behintzat... Nik hori baiño edukazio gehixo dakat!
- Ba esango neuke txakurrai beirau eta '*txakur zikin hori hemen zetan do*' esan berri dezula... Txakur zikin hori nerekin bizi dala jakinda, ia hori zela ulertu biharko neuken...

Billurra, norpean gustokua ez izatia... edo dana dalakua ulertu neike, baina ez detena ulertzen da horrek ze eskubide ematen dion jendiai txakurrak dakaunoi buruz, libremente, eozer esateko; eo txakurrak dakaunoi zer egin geinken eta zer ez esateko (eta batzuetan ez moduik onenian ere)... Batez ere, ez dauanian ize esateko arrazoirik tarteko.

Ados txakurra dakaunok elkarbizitzara beira eta herrixa, inguruak eta abarrak zaintze aldea betebiharrak dakauzela, eta holakuen gaiñian danian esaten dizuena, ados (ez da gustatzen entzutzia, baiña arrazoia dakanai eman ein bihar zakola esango neuke...). Baina txakurrak gustatzen ez zatzuzelako, aurrian dakazunai naezun tonuan, naezun moduan eta naezun bezela eozer esateko libre zeala pentsatziakin, barkatuko diazue, baiña ez noi ados, eta ez det ulertzen, ezta onartu ere.

Gai danakin holakuak bagiña, kontuak bestelakuak izango zian. Txakur jabiei bezalaxe, esateako, hondakiñak kudeatzen ez deuen herritxarrei ere gauzak horrelako argi esanezkeo, honezkeo birziklatze datuak izugarri hasitxa eongo liakez.

Baiña, tamalez, dakat sentsaziua, hainbatek euren zibikotasuna txakurren bueltan bakarrik jartzen deuela praktikan... eta ontzat eman bihar ez liaken beste makina bat gauza ikusten deuen arren, ez deula horren gaiñian txintxik esaten.

Iritzi-artikulu honek ertetzen doaneko fenomeno bitxi bat gertauko da: urte guztian txakurrakin ibili gean zenbaitx lekutatik desagertu eingo gea... Txakur zikiñekin ezin dalako espaziua partekatu.

Esateako, hondartza inguruan txakurrakin ibiltzia polemika gai bihurtzen da... Nahastaik nahi ez doanak, alde ein bihar... Illuntzian, iñor ez dauanian, agertzeko... Eta ikustekua izaten da ze garbi eta txukun egoten dan inguru dana...!

Txakurrik ez dauan bitxartian, beste danak ematen deu ez digula molestatzen... "*total... etorriko da batenbat jasotzea...*".

Argitaratzailea **Karenka komunikazio elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **aldizkaria@kalaputxi.eus** - **kalaputxi2001@gmail.com**
web **http://www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga.**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:15
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30
Donostia	7:55	11:30	14:30	19:30	---

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	14:30	18:00	20:30
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:20	11:20	13:20	15:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	11:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	11:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15
Mendaro	7:45	orduro	20:45	22:5	22:20
Eibar	8:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:50	orduro	21:45
Eibar	7:00	orduro	22:00
Mendaro	7:35	orduro	22:35
Mutriku	7:55	orduro	22:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18::40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

SAN MIGUEL IKASTETXEARI AGURRA

Badira dagoeneko hamalau urte alaba zaharrena San Miguel ikastetxeko haurtzaindegira eraman genuela eta ailatu zaigu momentua, nahiko genukeen baino azkarrago, gazteenarekin etapa berri bat hasteko Institutuan.

Alabekin izandako esperientziaz gain, guraso elkarteko batzordekide bezala, momentu asko pasa ditut eskolan eta beti sentitu naiz eta sentituko naiz bertakoa.

Azkenengo alditan sarritan entzun det ez degula behar den beste eskertzen besteek gurekiko duten jarrera edo eskeintzen diguten laguntza. Lotsagatik edo sentimenduak erakustea zaila egiten zaidalako, nik neuk ere hori egiteko aukera pasatzen laga det hainbat egoeratan.

Oraingoan ez det nahi hori gertatzerik, horregatik hona hemen merezitako omenaldi xumea San Miguel ikastetxeko irakasle, jantokiko eta garbitasuneko langile eta urte hauetan zehar pasatu diren praktiketako irakasle guztiei. Eguneroko lanagatik, gure seme-alaben heziketa urtetik urtera hobetzen saiatzeagatik eta, inportanteena, askotan errekurtso falta inplikazioarekin eta ilusioarekin gainditzea posible egiteagatik.

Eskerrak bihotzez guztioi, bereziki Mari Jose Orbegozori, aurpegian irribarrea duela, beti laguntzeko prest dagoelako.

Josefina Lekube Gatzagaetxeberria

ESKERRIK ASKO

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak Mutrikuko herriari eta elkarteko boluntarioei aurreko maiatzaren 26an egin zen diru-bilketan parte hartzeagatik eskerrak eman nahi dizkie. Lortutako dirua 867,23 euroko kopurua izan zen. Diru hau minbizia duten pertsona eta familiei zuzenduriko arreta, prebentzio arloko esku-hartze eta ikerkuntzarako erabiliko da. Mila esker guztioi zuen laguntzarengatik.

AECC - Gipuzkoa

204.605 € HERRITARRON ESKU

Maiatzeko Ogasun Batzordean (Hazienda) udalak eman zuen informazioaren arabera, 2016/17 urteetan metatutako gerakina 1.604. 527 € ingurukoa da.

Gerakina (remanentea) bi bidetatik sortzen da: Alde batetik urteko Aurrekontuetatik gastatu gabe edo exekutatu gabe geratu den dirutik, eta bestetik, aurreikusitako diru sarrerak uste baino gehiago izatetik, nahiz eta bigarren bide honen eragina ez den oso nabarmena.

Honek zera esan nahi du, azken hiru urteetan egin beharreko hainbat proiektu edo asmo ez direla egin edo bete.

Honen ondorioz, udalak esku artean daukan dirutza hori zertan inbertitu behar den zehazteko, udal talde politikoak adostasuna lortzen saiatu dira, eta maiatzeko Ogasun Batzordean argi geratu zen bezala, adostasuna lortuta dago.

Lortutako adostasunaren inguruan balorazio positiboa egiten dugu, eta iruditzen zaigu udalak, halako batez, herriari informazio hori eman egin beharko liokeela.

Bestalde, asko ez de arren, gerakin guztitik 204.605 € herritarren parte hartzearen bidez erabakiko da eta hori da bereziki aipatu nahi duguna oraingoan.

Parte hartzearen bidea, guztiok dakigun moduan, aurreko legealdian ireki zen, eta oraingoan, herritarrei informazioa ematea eta herritarrengandik kezkak jasotzeko bidea erabat itxi den arren, aurtengo Berdel Aipamenaren inguruan sortu zen parte hartze prozesuak ireki zituen, behingoz, udaletxeko leihoak.

Ez da erraza parte hartzearen kultura hau sustraitzea, baina poliki-poliki bada ere, bagoaz aurrera eta gerakinaren gai hau bigarrena izango litzateke. Ea ez den azkena!

Bukatzeko, berriro ere azpimarratu nahi dugu, urteko Aurrekontuen %15 baino gehiagoko gerakina izatea ez dela normala, eta honek erakusten du gestioaren ahulezia zein udaleko barne egitura kaxkarra dela.

EHBildu Mutriku

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira: **kalaputxi2001@gmail.com** edota **aldizkaria@kalaputxi.eus**

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.



Begoña Basterretxea Elezgarai

Eskerrik asko eskaini dizkiguzun une goxo guztiengatik

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak..)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

HOTELA ERRE ZELA 60 URTE

Efemeride hori gogoratzean herriaren historiako pasarte ilunenetako bat berritu nahi da, gaur egungo mutrikuarrok ahaztu ez dezagun. Une gogorrak 1958ko San Pedro Txiki egunean hiru etxe erre zirenekoak. Zazpi pertsona hil eta hainbat familiak zeukaten guztia galdu. Eta orduan ume zirenek ere pasatu zituzten bereak, neskak Donostian eta mutilak Bidanian eta gero Hondarribian. Egun hura eta ondorengo urteak gogoratu ditugu beraietako batzuekin elkartuta. Ume izan ziren haiek gogoratutako batzuk jarraian.

GOIZ HURA

Eguneroko bizimodua zen nagusi egun hartan ere: gizonak itsasoan, umeak eskolan, andrak etxeko lanak egiten edota eskabetxan eta zaharrak etxean. Halaxe zebiltzan, nor bere eginkizunetan. "Gu eskolan geunden, Zabielen, Maristetan, eta leihotik kea ikusi genuen; eskolatik irten eta han joan ginen kea zegoen tokira: Gure etxeak sutan!" "Samielako eskolatik ikusi genuen garbi-garbi kea eta sugarrak eta gure etxetik ateratzen zela konturatu ginen…" Gu hondartzan ginen mangoliñotan, eta bat-batean kanpaiak entzun genituen: *Ene, hamabiak dagoeneko?* Pentsatu genuen, eta atxerantz joan ginen, baina laster ikusi genuen kea, eta pasadako jendeari galdetuta jakin genuen gure etxea sutan zegoela".

Suhiltzaileak etorri ziren, baina, orain asko tardatzen badute, pentsa duela 60 urte. "Lehenengo momentuan etxeetako jendea, etxe azpiko tailerreko langileak eta hurbildu ziren herritarrak ibili ziren jendeari laguntzen, entretatik eta balkoietatik ateratzen". "Behetik gora kea igotzen zela, ezin eskaileretan behera irten, eta ama batek umea besoetan hartu eta teilatutik irtetea lortu zuen… baina gero ezin itzuli atzean geratutako beste umearen bila!". "Zazpi lagun hil ziren: lau zahar, bi ume eta heldu bat. Heriotz guztiak dira tragikoak, baina hunkigarriena beharbada izan zen Pedro *Mixkia*rena eta ilobarena; kaletik jendeak esaten zion Juanitari irteteko, irteteko, baina osaba Pedro gizon haundia zenez ezin hura mugitu eta nahiago izan zuen berarekin gelditu eta hantxe galdu osaba bakarrik lagatzea baino…" "Hori ez luke jende askok egingo…"



SUTEAREN ONDORENGO EGUNAK

Etxeetako gizon gehienak arrantzaleak ziren, eta Galiziako uretan zeuden atunetara joanda. Ez dute ondo gogoratzen, baina uste zabalena da kaltetutako etxe bakoitzeko gizon bat etorri zela autobusa hartuta. "Gogorra… Pentsatu: itsasora irten familiarentzako ogi bila, eta etxera bueltatutakoan dena galduta ikusi, etxeko eta auzoko zazpi pertsona hilda…"

Mutrikuarrak oso ondo portatu ziren gertakizun hartan: Lehenengo momentutik kaltetutako familien ondoan jarri ziren eta aurrera irteten lagundu zieten. Tamalez, egon ziren harekin ezer jakin nahi izan zutenak, baina orokorrean mutrikuarrak oso ondo portatu ziren. "Gogoan daukat ni *Txanbel*enera joan nintzela egun hartan bazkaltzera…"; "Ni, berriz, *Eziñaberastu*nera…"; "Ni *Mendixa*nera..." Hurbileko familietan bezala, herriko ezagunen etxeetan hartu zituzten sutean kaltetuak izan ziren umeak eta beren familiak.

Gipuzkoa mailan eta Erbestean ere dirubilketak egin ziren Mutrikuko kaltetuen alde, "baina diru hori ez zen inoiz ailegatu gure etxeetara. Gure gurasoek azkeneko pezetara arte ordaindu behar izan zuten eman zieten etxea; han daude paperak gordeta". "Tolosan Realak eta Athleticek jokatutako partidua oso sonatua izan zen, eta haraxe joan ginen Bidanian geunden ume guztiok". "Gu, neskak, Donostian geunden eta ez ginen denak joan, baina bi neska bai, partidu hasieran sakea egin eta futbolarien agurra jasotzera; Carmelo Athleticeko porteroa-ta…"

ERBESTEKO EGONALDIA: DONOSTIA ETA BIDANIA

"Etxerik gabe eta ezer gabe, ez zegoen familia batuta segitzerik, eta etxe berriak egin artean umeok eskola batera joatea erabaki zuten". "Esan ziguten eskurtsiora gindoazela eta *Ametza* aurrean elkartu



ginen autobusa hartzeko". Ume gehienek sinestu zuten, baina batzuek ez, "hango zalaparta hura ez zen normala, eta gure amen aurpegiak ere ez… Hango tristezia… Oso gogorra izan zen". "Imajinatu zer izan behar den ama batentzat bost urteko umea ezagutzen ez den eskola batera bialdu behar izatea!" "Hamabi urteko neska-mutilok arduratu behar izaten genuen gure txikiez, gure txikiak ziren eta!".

Donostiara heldu zirenean arazoak zeuzkaten eta lagata zeuden neskentzako eskola bat aurkitu zuten. "Hasieran maestrak zeuden gure kargu, gaiztoak, oso gaiztoak. Falangekoak ziren eta eskua luze-luze altxatuta Cara al sol kantarazten ziguten goizero-goizero espainiar bandera mastara altxatzen zuten bitartean". "Guretzat ekartzen zuten jatekoa ere despentsatik hartu eta eraman… Baina geuk harrapatu! Andra gaizto haiek kendu eta monjak ekarri zituzten. Haiek ere flangistak edo hurrekoak ziren, baina gurekin behintzat ondo portatu ziren". "Gu egun osoan euskaraz bizitzetik gindoazen, eta txoke haundia izan zen egunero denekin erdaraz egin beharra. Guk hasieran ez genuen ezer ulertzen, baina ikasi genuen, bai."

Mutilak Bidaniako Muñoa erresidentziara ailegatu zirenean mendian zegoen etxe haundi bat aurkitu zuten. "Han ez zegoen ezer, baina oso ondo pasatzen genuen mendian. Hango baserritarrek lasaitasun ederra hartu zuten guk alde egin genuenean!". "Baina gu ez geunden han egoteareKin konforme eta egunero genuen ihes egiteko pentsamendua. Askotan irteten ginen etxera bueltatzeko asmotan, baina inoiz ere Azpeitiraino heldu ez! Batzuetan baserritarrek engainatzen gintuzten eta kolegioko arduradunei deitzen zieten gure bila joateko… Beste batzuetan esaten ziguten guardia zibilak gure bila zebiltzala… Kontua, beti bueltatzen ginela Muñoara". "Kolegioan egondako urte luzean bisitak ere jasotzen genituen, etxekoak-eta etorrita, eta horrek lagundu egin zigun Mutrikurekin kontaktua izaten". "Ama eta amona bisiguarekin etorri zirenekoa ere gogoan dut, Bidaniako tabernara joan eta hantxe erreta jan genuenekoa". "Eta Pako Pertxal etorri zenekoa ere bai, ume denontzako tronpak ekarrita!"

"Neskengana hilean behin etortzen ziren bisitan, domeka arratsaldean; egin kontu, gaur egungo kartzela baino gogorragoa!" "Eta batzuetan han inguruan bizi ziren mutrikuarren bisita ere jasotzen genuen". "Aita Donostiako portutik antxoa bete millotarra besoan hartu eta kolegioa zegoen Loiola gaineraino oinez etorri zenekoa ere gogoan dut". "Ez, ez gintuzten bakarrik utzi, nahiz eta bakarrik egon behar izan ginen". "Eta neska koskorrok Amarako jaietara ere eramaten gintuzten monjek, gerrian falangearen gerrikoa jantzita. Gerriko uztarria eta geziak ikusita, jaietako kaxeta guztietan inbitatzen ziguten… Hura zortea! Gero jakin gezi haiek zer ziren!"

Neskak Mutrikura itzuli arte Donostian egon baziren, mutilak Mutrikura etorri aurretik Bidaniatik Hondarribira joan ziren sei hilabeterako, baina hura ez zen berdina. Kolegioa herri barruan zegoen eta lotuago bizi ginen. Itsasoa bagenuen, baina Bidaniako askatasuna, zelaiak eta fruita izugarri handi haiek falta zitzaizkigun.

ETXERA ITZULI ONDORENGOA

"Ume batzuk beste batzuk baino lehenago itzuli ginen etxera, familiakoen etxeetara edo kaltetutako etxeak lehenago konpondu zirelako, baina Hoteleko umeak hantxe egon ginen ia bi urtean, etxe berriak egiten ziren bitartean". "Itzuli ginenean joateko egunean bezain emozio handia egon zen autobusetik jaistean, berriz ere familiak elkartu ginen eta". "Gu umeak ginen eta ez ginen akaso egoerarekin konturatu, baina gure gurasoek, amek batez ere, asko sufritu behar izan zuten une haietan". "Gu handik bueltatu eta lehengoan jarraitu genuen, eskolara joan eta kalean jolasten…" "…eta eskabetxera joaten ere bai!" "…eta txalopa mutil ere bai!". Bizitzak aurrera jarraitu zuen.

ELKARTASUNA

"Hotela ezizena herritarrek jarritakoa zen, etxe handi hartan jende asko bizi ginelako bai, baina etxe irekia zelako ere bai. Han ez zegoen arazorik etxe batetik bestera ibiltzeko, edonoren etxean sartu ahal zinen arazorik gabe. Gure artean elkartasun handia zegoen sutearen aurretik, eta kolegioetara bidali gintuztenean are eta elkartasun estuagoa sortu zen gure artean" "Gaur egun ere gure artean badago halako konplizitate berezi bat, Hoteleko ume izan ziren haien artean". Ordutik hona urtero-urtero atera izan da Komenduan hildakoen omenezko meza, eta aurtengoan ere hala izango da, San Pedro txiki egunean, Hotela erre zela 60 urte beteko diren egunean.



ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

islada FISIOTERAPIA
FISIOTERAPIA, PILATES, ERREHABILITAZIOA, HIPOPRESIBOAK
ANTIGIMNASIA, DIATERMIA (MEDESTEC)
San Agustin 10, behea · 943603655 · islada@islada.org

BASOEN OSASUN EGOERA KEZKAGARRIA DA

Insignis pinua pairatzen ari den gaixotasunak biziki kezkatu ditu gure baserritar eta lur-jabeak. Arazoari irtenbidea aurkitu nahian, joan den ekainaren 1ean, Mutrikuko Baserritarren Elkarteak (MUBAE) hitzaldia antolatu zuen Ondabarroko lokalean. Bertan, Amaia Urkola Fraisoroko Landare Osasuneko laborategiko tek-nikariak eta Joseba Arrieta Gipuzkoako Baso Elkarteko lehendakari ohiak hitz egin zuten, basoen gaur egungo egoera eta etorkizunera begira dauden aukerak azalduz. Euskal Herrian nagusi dugun espezia *insignis* pinua da, eta momentuan "*banda marron*" izenarekin ezagutzen den gaixoa dauka, beraz irtenbideak topatu nahi dira. Aholkuen artean, gaixorik dauden arbolak kendu eta beste zerbait sartzea egokia litzatekeela aipatu zen, edo pinua kendu ondoren bertako arbolak hasten uztea. Gerora begira etorkizun kaxkarra ikusten da gure mendientzat.



AINONDO MARTXAN DA

Iaz jarri zuten martxan Ainhoa Mugerzak eta Andoni Dominguezek *AINONDO kirol abentura & aisialdi jarduerak* ekimena. Lehenengo urte arrakastatsuaren ondoren, ekainaren 9an hasiera eman zioten aurtengo denboraldiari, eta Intxirrian izango dira uda osoan itsas-kiroletako aisialdi eskaintzarekin. Itsasoko kiroletan jardun nahi duenak, eskuragarri izango ditu zutikako arrauna eta kayakak, bakarka zein taldeka jarduteko, norbere kabuz ibiltzeko zein ikastaroak egiteko. Eta erabileraren arabera, prezio egokiagoa izango duten bonoak ere egingo dituzte. Informazio gehiago, 688732913 telefonoan.



EIKA LANTEGIKOAK MUTRIKUN

Enpresako urteko egitasmoaren baitan Euskara eguna ezarria du Etxebarriko EIKA enpresak, hainbat mutrikuarren lantoki ere badenak. Egun batean jai hartu eta urtean zehar euskara-planaren inguruan egindako lanketari halako bukaera bat emateko egun-pasa bat egiten dute. Aurtengoan, Mutrikun egin dute egun-pasa hori, Nautilus ikasgune geologikoan zein Hirigune historikoan bisita gidatuak eginda. Ondoren, herrian zehar poteoa egin eta Kalbaixon bazkaldu zuten. Inguruko herrietako bizilagunek ikasi zuten, horrenbestez, gure herriko historiaren zati bat, eta hurrengo batean itzultzeko bidea ere bai.



ERIK MENDIZABAL TXAPELDUN

Zestalari mutrikuarrak berriz ere Hiruko Koroa irabazi du Floridako Daniako frontoian, "Championship Season" denboraldian. Seigarren aldiz lortu du pilotari gutxiren eskura dagoen lorpena: banaka, bikoteka eta kinielatan irabaztea. Guztira, Erikek 144 kiniela irabazi ditu, alde handiz nagusituta. Kiniela gehien irabazi dutenen zerrendako hurrengoak: bigarren postuan berdinduta Iker Foronda arabarra eta Ruben Bailo nafarra (97 kiniela); laugarren, Kevin Ithurria zuberotarra (93 kiniela); bosgarren, Jon Zulaika donostiarra (89). Ea ba Eriken jokoaz Miruaitzen gozatzeko aukera izaten dugun luze gabe.



SPRINT TRIATLOIA BADATOR

TALAIXA Triatloi Taldeak eta Udalak antolatuta, Mutrikuko Sprint Triatloiaren 5. edizioa jokatuko da ekainaren 30ean. Ohitura denez, goizeko 10:30etan LHko 3, 4, 5 eta 6. mailetako umeen duatloia hasiko da portuko eremuan, piszina ondoko zabaleran; gazteek 250 metro korrika, 1000 metro bizikletan eta beste 125 metro korrika egin beharko dituzte. Arratsaldean helduentzako Sprint Triatloi proba jokatuko da, arratsaldeko 17:00etan hasita. Igerian, bizikletan eta korrika. Aurtengoan, bizikleta probaren ibilbidea aldatu egin da eta honakoa izango da: Portua-anbulatorioa--Kakatza-Olatzerako bidea-Ibiri-Kalbaixo-Astigarribia, buelta hartu eta Kalbario gaina igota, portura jaitsi Samikollan barrena.

Egun horretan Portuko inguruetan San Pedro eguneko ekitaldiak egongo direnez eta hondartzara jende asko joatea posible denez, herritar guztiei pazientzia handia eskatzen zaie, probak ordu eta erdi inguru iraungo duela kontuan hartuta; eta egun horretan aparkaleku arazoak izango direnez alternatibak aurkitzeko ere bai. Bestalde, horrelako ekitaldi bat antolatzeko atzeko lan handia dagoela eta, antolatzaileek dei berezia egiten diete laguntza eskain-tzeko prest daudenei; mesedez, aurrez izena eman udaletxean edo **talaixatri@gmail.com** helbidera idatzita.





MUTRIKUARROK ELKARTASUNA

Aski ezaguna den Altsasukoen auziaren aurrean mutrikuarrek elkartasuna erakutsi nahi izan zieten gazte nafarrei eta beren sendiei. Lehenengo Mutrikun bertan eta iruñean ondoren. Aldarrikapena: Altsasukoak aske, etxera.

JUBILATUEN ABESBATZEN TOPAKETA

Iaz izandako esperientzia ona ikusita, Anaiarte Biltokiko Abesbatzak aurtengoan ere truke antolatu du, beste herri batzuetako abesbatzen emanaldiak gure herrian eskaintzeko. Aurtengoan Hondarribiko jubilatuen abesbatza izango da gurean, Anaiarteko abeslariekin batera saio ederra eskaintzeko asmotan. Emanaldia hurrengo uztailaren 5ean izango da, Komenduan, arratsaldeko 7etatik aurrera. Esan Anaiarte Biltokiko Abesbatza ere ibili dela herritik kanpo beren kantuak eskaintzen. Aurten, Hondarribira joan ziren eta harrera jendetsua eta goxoa izan zuten.

TUNELEKO MURALAK IKUSGAI

Ekainaren bian inauguratu ziren ofizialki Goiko plazatik frontoira jaisteko tunelean Arte Eskolako lagunek egindako muralak. Alkatea, kultura zinegotzia eta eskolako artezaleak bertara inguratuta, Atxukaleko balea eta parkeko tuneleko akuarioa gogoratu zituzten artelanak, pinturak kasu honetan, herria apaintzeko eta gure herriaren historia eta izatea erakusteko duten balioa azpimarratuta. Gainera, lan horiek indarra hartzen dute herritarrek egindakoak direlako. Pozgarria da herritarrek, oro har, horiekiko erakutsi duten errespetua. Tuneleko irudiek tunelaren inguru horretan eta herrian izan ziren lanbideak gogora ekarri nahi dituzte: zestagintza, abarketagintza, malutagintza eta arrain saltzaileen lana. Hara hor herritarrontzako eta bisitarientzako bisita--gune berri bat.





ARRIETAKUA JAUREGIAK ATEAK ZABALDU DITU

Otsailak 27an Mutrikuko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu zuten Enrique Areilza Churruca Mutrikuko Kondearekin, bisita gidatu turistiko eta hezigarriak eginez jauregia publikoari irekitzeko helburuarekin. Aurrerantzean, hortaz, herritarrek eta bisitariek aukera izango dute XVIII. Mende hasieran Arrietatarrena izandako dorretxearen hondarren gainean Antonio Gaztañetak eraikitako eta ondoren Kosme Damian Txurruka bizi izandako jauregia barrutik ikusteko. Bisitei dagokienez, esan behar 15 laguneko taldeak antolatuko direla aurrez turismo bulegoan zein www.geoparkea.com webgunean helduentzat 10 euro eta 12 urtetik beherakoentzat 5 euro balio duten sarrerak eskuratuta. Protokoloko lehenengo bisitak eginda, mutrikuarrentzako bisita bereziak egingo dira ekainaren 22, 26, 27, 28 eta 29an, goizeko 9:30etan eta 12:00etan. Horietan parte hartzeko, aurrez izena eman beharko da turismo bulegoan (943603378).

SAN PEDRO EGUNEKO OSPAKIZUNAK

Ekainren 29an San Pedro eguna dugu, Mutrikuko arrantzaleen zaindaria, Kofradiari ere izena eman ziona urte luzetan. Egun hori ospatzeko Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu ostiral-larunbaterako.

Ostiralean, arratsaldeko zazpietan Pintxo-pote musikatua abiatuko da Goiko plazatik eta moilara helduko da zortziak alderako. Azken kantaren ostean, kontzertua izango da *Guda Dantza* taldearen eskutik.

Larunbatean, goizeko hamaika eta erdietan Ahozko arrain salmenta izango da *Arku-Gain*eko arkupean; ondoren, herri-bazkaria egingo da *Arku-Gain* elkartean (tiketak aurrez turismo bulegoan). Eguna amaitzeko, arratsaldeko zazpietan Erromeria izango da. Arrantzale, kaletar, eta baserritar mutrikuarrek gozatzeko moduko asteburua moila aldean.



EUSKARALDIA
BELARRIPREST
AHOBIZI

txirritxa.com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrildea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

BADATOR MAREA URDINA!

Harrapatu gaitu *Marea Urdina*ren olatuak; jadanik, Euskal Herriko hainbat txoko zipriztindu ondoren, hemen da. Uztailaren 7an Saturrarango hondartzan hasiera emango zaio autismoaren aldeko egitasmo honi: Gipuzkoako kosta osoa igerian zeharkatuko dute.

Dagoeneko ***Marea Urdina***ren aparra heldu da Mutrikura. Egitasmo horrekin bat egiteko asmoz, Mutrikuko ikastetxeetako ikasleek, irakasleek, guraso elkarteek eta hainbat kirol taldek ekintza anitz burutu dituzte; horien artean, hitzaldiak, dantzaldiak eta babesa adierazteko argazkiak atera dituzte. Ekintza horien guztien helburua gizartea sentsibilizatzea da; Autismoa zer den ezagutzera ematea.

Gipuzkoako kosta igerian zeharkatuko duen egitasmo horrek bi etapa izango ditu, eta hainbat igerilarik hartuko dute parte zeharkaldia erreleboka osatuz. Guztira, 63 km (34 itsas mila) egingo dituzte. Lehen etapak 27 km izango ditu; uztailaren 7an Saturraranen hasi eta Orion bukatuko dute. Uztailaren 8an, berriz, Oriotik abiatu eta Hondarribian bukatuko da; bigarren etapa horretan 36 km egingo dituzte.

Ordea, ***Marea Urdina*** itsas zeharkaldi bat baino askoz gehiago da: Autismoa duten pertsonen gizarteratzea aldarrikatzea helburu duen egitasmoa. Nahiz eta gure inguruan bizi dugun errealitatea izan, ezagutzen ez den nahastea da AEN (Autismo Espektroaren Nahastea). Jaiotzen denetik hil arteko garapen nahastea da, ondorioz bizitza guztirakoa. Pertsona horiek hitz egiteko, emozioak identifikatzeko eta adierazteko zailtasunak izaten dituzte, ingurukoekin harremanak ohikoak baino zailagoak izanik. Horretaz gain, Autismo kasu bakoitzak bere berezitasunak izaten ditu. Gipuzkoan 1.500 pertsona baino gehiago daude nahasmen honekin.

Horrela, **Marea Urdina** taldea autismoaren mundua nolabait gertutik bizi duten lau igerilarik osatu dute, igeri egiteko afizioa eta autismoa ilusio handiz egitasmo berean uztartuz.

Gizarteak horien berri izan eta berauen gizarteratzean parte hartu dezan **Marea Urdina** antolatzera animatu ziren. Hain zuzen ere, beraien helburua gizartea sentsibilizatzea baita, eta ez du inolako diru bilketa helbururik. Beraz, jasotzen den euro bakoitza proiektuaren gastuen ordainketarako erabiliko da, eta, gastu guztiak ordaindu ondoren, erakunde ongile bati dohaintzan emango zaio.

Marea Urdinaren Olatuak harrapatu, eta zanga egitera animatzen zaituztegu guztiok.



Argazkia: Iñaki Etxenagusia


Burumendi Mendizale Elkarteko kideak *Marea Urdina*rekin bat eginda


Mutriku Rugbi Taldeko kideak *Marea Urdina*rekin bat eginda

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

HERRITARREKIN LAN EGITEA EDERRA IZAN DA

Ez da erraza agur esatea. Lan urteak bete eta beste bizimoduari heltzeko ordua iritsi zaie. Manolo, jubilatuta egonda ere, burua etxeko negoziotik hurbil. Pedro, berriz, ekainean jubilatuko da. Andres Iñarrairaegik eta Maritxu Garagarza "Kotxorro"k ekin zioten bideari bukaera emango diote, eta ez buruari hamaika buelta eman gabe. Lasai ederrean egon gara eurekin hizketan.

Eta atzera begiratuta...

Gazte ginela hasi ginen gurasoekin lanean, aitak eta amak lan egiten zutelako. Aitak paketeak banatzen eta ama berari laguntzen orgatila batekin. Horretaz gain gure ama eskabetxean ere baziharduen, eta, nola ez, etxeko lanetan. Eskolatik atera eta gurasoei laguntzea zen gure lana.

Garai haietan *La Esperanza* autobus lineak Mutrikura ekartzen zituen paketeak banatzen jarduten genuen. Lehenengo astoarekin eta handik urte batzuetara *Vespakarra* ekarri genuenean, harekin. Nik -dio Manolok- 18 urterekin atera nuen gidabaimena eta 19rekin kamioneta bat erosi nuen lanerako. Orain esan dezaket baina 16 urterekin ere ibiltzen nintzen gidabaimenik gabe *Vespakarra*rekin eta *DKV*arekin, orduan kontuak hala ziren eta. Ni, berriz, -dio Pedrok- Deban nenbilen lanean eta Manolo soldaduskara joan zenean hangoa utzi eta etxeko lanari ekin nion, odurako gidabaimenak aterata.

Paketeak banatzetik...


Gaurko konturik eta kontrolik ez zen orduan. Herrian ere kamioi gutxi eta gure lanen barruan eraikuntzako materialak, kontserbetakoak eta industria materialak garraiatzearena genuen; denetik egitea egokitu zitzaigun. Urte batzuetan Ondarroara joaten ginen arraina jasotzera ondoren Eibarrera saltzera eramateko; orduan Mari Karmen Arrasate eta Ondarroako beste hiru emakume arrain saltzaileri egiten genien garraio lana, orduan zeinek zeukan kotxea ba? Herriko hainbat baserritara ere joatea egokitu zitzaigun; goizetan, esnea jaso eta *Iparlat*eko esne-depositora eraman. Orduan lana baino ez genuen egiten.

Edari kontuak, berriz, aita zegoenean *El Leon* garagardoetakoa etorri zitzaionean hasi ziren. Garai hartan jende gutxik zuen garagardoaren berri eta harexi ekin zion. Ondoren etorri ziren esnea, gaseosa, freskagarriak eta ura. Lehenengo biltegia Erdiko kalekoa izan zen, ondoren etorriko ziren eliza atzekoa (lehengo kuartelekoa) eta ondoren Entzuzkoa. Almazenak hiru lekutan ba-









natuta jardun genuen urtetan.

Eta aitaren erreleboa hartu zenuten…

Aita gazterik jubilatu zen osasun arazoak zituelako, 55 urterekin. Orduko lanak eta gaur egungoak ez du zer ikusirik eta azkenean faktura pasa zion. Gaur lana mekanizatuagoa da, orduan, ordea, pisu handiak eskuz garraiatu behar ziren eta hala lan eginda erraz izorratzen zen edozein. Aurrera egin behar zen, baina ez baldintza haietan. Almazena toki bakarrean izan behar genuela erabaki eta gureak ziren lurretan egin genuen gaurko biltegia dena. 1984 urtean hasi ginen eraikitzeko lanetan eta hurrengo urtean ginen bertan lanean.

Eta ordutik hona…

Lana ematen du sinisteak zenbat aldatu diren kontuak. Garai hartan oso jende gutxi ateratzen zen oporretara eta jendeak asko kontsumitzen zuen. Bestalde, erbestetik ere jendea etortzen zen uda pasatzera nahiz hondartzara eta igarri egiten zen hori. Gero uda beroa egokituz gero, zer esanik ez, mugimendu handia izaten zen herrian.

Kontsumitzeko ohiturak ere ez dira lehengoak…

Ezta gutxiagorik ere. Azken urteetako jaitsiera oso-oso handia izan dela esan behar da. Alde batetik, lehen beste edari batzuk zeuden modan: konbinatuak, txanpainak, kopak… Gu garagardoarekin hasi eta besteetara ere pasa ginen, baina txapelduna garagardoa izaten jarraitzen du. Ardoak ere izan zuen bere sasoia; gaur egun, ardo zuriak aurrea hartu dio beltzari… moda kontuak horretan ere. Garagardotan, berriz, aukerak asko zabaldu dira, marka asko agertu dira eta beste asko desagertu. Enpresa edo marka handiak dira jaun eta jabe, badakizu, arrain handiak txikia jaten du. Euren arteko lehia basatia da. Prezioekin jokatzen dute eta horren aurrean gurea moduko biltegiek gorriak pasa behar.

Onartu behar dugu lanerako urte onak izan ditugula. Mutrikun jarduteaz gain Ondarroan ere lan asko egin dugu. Ondarroako orduko giroak ere ez zeukan zer ikusirik gaurkoarekin. Denean jaitsi da kontsumoa eta toki guztietan aldatu da giroa.

Eta aldaketak lagundu ez jarraitzeko…

Gure jubilazioaren aurrean etxeko gazteek asko pentsatu ondoren ez jarraitzea erabaki zuten eta guk ezin ezer esan horretan. Garai baten amaiera modura hartu dugu. Orain gazteek euren garaia bizi behar dute euren modura. Hemendik aurrerakoen zerbitzua ez da berdina izango, ezin da izan, baina dena doa aldatzen…

Baina Iñarratarren lana ez da izan banaketakoa soilik. Urte askoan zehar herriko edozein ekitaldi, ekimen edo herrigintzaren parte ere izan dira… eta beti musutruk… Zeinek ez die eskatu inoiz faboreren bat?

Gure aldetik eskatu izan diguten guztiei laguntzen eta gure modura parte hartzen saiatu izan gara; Korriketan gure kamioiak eta furgonetak han izan dira gauez nahiz egunez. Herriko afari eta ekitaldietan. Txosnak jartzen eta kentzen. Mendiko kontuetan ere hantxe, lasterketetan, erraldoiak garraiatzen, kultur zein kirol ekitaldietan… Saiatu gara gure ahalmenaren arabera laguntzen eta gustura egin dugu. Gogoratuko da bat baino gehiago, nola Malen batzuetan ateratzen ziren elkarte ezberdinetako *Miss*ak. Orduan ere, karroza moduan Etxabetarrek apaindutako gure lehenengo kamioia izan zen.



IÑARRATARREN ESKER OHARRA:

Eskerrik asko gure bizitzaren zati handia izan zareten guztioi: Mutrikuko taberna, denda, jatetxe, elkarte eta kanpinekoei. Baita gure biltegira hurbildu zareten herriko bezero guztioi ere.

Mutrikuko auzo ezberdinetakoei, zuen festetako partaide egin gaituzuelako.

Langile moduan gurekin lanean aritu zareten herritar asko eta askori ere.

Ekitaldi ezberdinetako taldeei gurekin izan duzuen konfidantzagatik.

Ezin ahaztu Mutrikuz gain Ondarruko tabernak, dendak eta jatetxeak gure izaeraren parte handia izan zaretelako.

Besarkada bero bat guztioi. Eskerrik asko bihotz-bihotzez, bidean elkarrekin jarraituko dugun itxaropenarekin.

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

ESKERRIK ASKO!

ekainaren 10ean Giza-katean parte hartu zenuten ia 700 mutrikuarroi!



gure esku dago

etorkizuna futúro









Euzkadi

EUZKADI EGUNKARIA, 1933 - 06 - 16

RIKARDO ARRIETA "GURUTZ-ONDO"

MUTRIKUKO KRONIKAK

Koldobikatarrak

Datorren larunbatez, asiko, zaigu urteroko Koldobika Deunaren bederatziurrena, iluntzean 8´tan. Koldobikatarrok, ea beste urtetan baño geyago joaten geran, gure zaindariari bederatziurrena egitera.

Ongi etorriak

Ongi etorriak izan zaiteztela zuen txoko ontara, Gazteiz´tik, Andonegi´tar Andoni, Arruti´tar Errapel, Usobiaga´tar Joseba Andoni ta Mendizabal´tar Alexander, apaiz-gai abertzale zintzuak

¡"Langileak Alkartu"!

Aurreko aste baten irakurri nun "Ekin"en zion ¡"Langileak Alkartu"! nere emengo lagun "Andoni" idazleak idatzita.

Oso ederki zion, euzko-langileak zergaitik gaudezen, gaudezen eran.

Atzerritar langileak sartu zaigu lantegietan. ¿Nola? Begira euzkotar langileak. Beren errietan "*mucha patata*" egon arren, ezin bizirik irten zuten ta Euzkadi´ratu ziran.

Lantegietan sartu nai ta guk baño merkiago lana egingo zutela, atzerritik goxiak ta zer jantzirik etzeukaten ayek, etorri ziran, bai lana aurkitu ere.

Beren errian gosiaz bizi ziran ayek, emen gure erdia janda ere an baño atsegiñago bizi ziran, ta… zer egin…? Pot, bertan gelditu.

Gaur nagusitu zaigute (ez, gaizki esan det, nagusitu nai dute) ta guk len ta orain ezkatzen deguna (bihar deguna ezkatzen degu ta) baño geyago ezkitzen dute, orain, belarrimotz zoritxarrez guretzat etorritako ayek. Oyen artean ere baditugu euzkotar langileak, lo daudezelako.

¡Euzkotar langileak itxartu! ¿Ez aldezute ikusten atzerritik gosiak etorritako ayek emen "bapo" bizi dirala? ¿Eta gu, gure errian ta etxian bizi eziñik, atzerritarrak sartu ta nazpilau gaituelako, gure anai azko beren seme-alabatxuen gose negarra asetzeko, ogi pixkat ez daukatela ta ezkian azi bearrean daudezela?

Zer negargarria ta ala ere geruago ta atzerritar geyago jartzen errian. ¡Euzko-Langileak! Atosten batu gaitezen danok "Euzko-Langile Alkartasunean".

Belarri motza
¿Zertara ator ona?
Atzera ua eure aberrira
Ango lur ederrak
Gogoz landu egixak.

"Txitxo" Euzko´ko idazleari

Joan dan asteko zeure idazkia irakurri nuan ta bertan diozu asieran: Ondo eguan beurak idatzi zutena, batek zion dantza lotuaren gañian eta bestiak atzerriko abestien gañian. Eta Euzkeraren gañian nola etzuten idatzi? ¿Ala emengo batzubekin ez dute arpegi asarrerik ikusi nai?

Eta nik diozut, nik arpegi asarrerik ez det nai iñorkin euki, bañon eragitea didazutenokin, bai. Juan E.B., begiratu izan erronka da ari ta ikusten det berregun da amarretik gora, jun E.A.B. ta au ere erruz.

Etorri erbestetik lagun bat ta galdetzen dit. ¿Abertzale edo bazkide asko al zaudete?

Eta nik, bai, erantzun bihar, gero enparantza jun, da ikaratu egin bihar da lotsatu, abertzaletasunik agiri ez. Au da neretzat asarrerik aundiena ta minberiena. "Motriko´n abertzale asko zaudete" erbestetuak diote bañon emen gutxi agiri.

Euzkeraren gañian nola ez gendun idatzi? Ez al zendun jorraile´ko 8án "Euzko´k" ekarri zun idazki izenpetzen zana ¡Mendigoizaleak! Andonegi´tar K. idatzitakoa irakurri?

Ez badezu irakurri, irakurri egizu ba, apurtxo au bertan ziona "Euzkadi´n euzkeraz egiten ez den bitartean gu eta gure Aberria "*esclavo*" egongo gera. Baña Euzkadi guzian euzkeraz egiten dan egunian Euzkadi gaizkatua izango da"

Ala ere euzkeraren gañian nola idatzi ez gendun? A ba uste dezu gure idazkietan beti gauz batetzaz idatzikodugula?

Gañera euzkera bear bearrekoa da, bai, bañan nik uste det euzkera ez dagola emen (orain behintzat) ain gaizki, zergaitik abertzale askok erderaz itz egiteko aña ez dakitelako.

Beste batzuk bai ordia gure artean "*consejos vendo, pero para mí no los tengo*" egiten dutenak.

Agur irakurle ta urren arte.

¡Viva la Pepa! ala Hil bedi Konstituziua!?

1808. urtian, Josef Bonapartek Espaiñiako lehelengo konstituziua siñatu zoan Baionan. Dala dala, handik lau urtera Kortiek Cádizen onartu zeuena jo izan da, tradizioz, lehelengotzat. Bigarren hori gaiñera, Espaiñiako eta Euskal Herriko historixan mugarri bat izan da. Eta, zela bizi izan zeuen mutrikuarrek konstituzio hori? Ikusi daigun.

XIX. gizaldixa, gorabehera handiko sasoia izan zan. 1808. urtian frantsesek Fernando VII.a Frantziara eraman eta haren tokixan Josef Bonaparte –Napoleonen anaixa– jarri zeuen Espaiñiako tronuan. Gerra luzia ekarri zoan horrek: "Frantzestada" edo Espaiñiako Independentzia gerria (1808-1814).

Erregien botere absolutuari aurre egitxeko, 1812. urtian, zeresan haundixa emango zoan Konstituziua aldarrikatu zan Cádizen. Hain zuzen ere, 1812ko San Jose egunian. Hori dala-ta "la Pepa" ezizena jarri zixuen. Konstituzionalistek "*¡Viva la Pepa!*" esaten zeuen, eta hortik dator gaur egun erderaz erabiltzen dan esaeria.

Konstituzio liberal hori, onartu eta bi urtian egon zan indarrian (1812-1814), harik eta Fernando VII.a Frantziatik bueltatu eta baztertu zoan arte. Beste bi momentutan ere egon zan indarrian: hirurteko liberalian (1820-1823) eta 1837ko Konstituziua onartu aurretxuan (1836-1837).

Hirurteko liberala Mutrikun

Bi urte konstituzional horrek (1812-14) pasautakuan, Fernando VII.a erregiaren seiurteko absolutistia etorri zan. Baiña, liberalak indar haundixa hartzen zijuazela ikusitxa, 1820. urtian, gogoz kontra izan arren, Konstituziua siñatu bihar izan zoan erregiak. Hiru urtian (1820-1823) egon zan indarrian Cádizko konstituziua.

1820ko apirillaren 6xan Konstituziua publikatzeko edo plazaratzeko ekitaldia egin zan Mutrikun. Goizeko 10etan hasi zan ekitaldixa Beheko plazan, bi egun lehenago erabaki zeuen bezela, "*la publicación solemne de la dha Constitución se verificará en la plazuela que se halla en el centro del pueblo llamada Yglesia vieja contigua a la Casa Concejil menor, a la qual se llamará Plaza de la Constitución*".

1790. urtian bertako eleizia bota zeuenetik toki hortan plazia sortu zan. Gaur egun *Beheko plaza* esaten dixaun horrek izen asko euki ditxu: *Plaza de Eleizazarra/Yglesia vieja (1815), Plaza de la Constitución (1820), Beco plaza (1826), Plaza de la Alameda, Plaza de España...*

Bi plaza nagusi zozen orduan Mutrikun, goikua (Arriturriaga edo "Plaza mayor") eta behekua. Plaza banatan, udaletxia zauan, udaletxe haundixa goiko plazan, eta udaletxe txikixa, beheko plazan. 1820. urtian txikixa erabiltzen zan, haundixa erre egin zalako 1811. urtian, frantsesen kontrako independentzia gerran.

Apirillaren 6 hartan, beraz, Manuel Antonio Urreiztieta alkatia buru zala, udalbatza eta eleiz arduradunak batu ziran "Konstituzio-plazan". Udaletxetik plazara erten zeuen, danbolintxeruak eta tanborrak girua alaitzen zeuela, eta bertan gazte batzuek armak hartuta salbak jo zitxuen eta ondoren eskribauak Konstituziua irakurri zoan, *empezé a leer la constitución politica de la monarquia española*.

Plazaren sarreran arkua (arco triunfante) jarri zeuen kurpitxarekin ederki apainduta. Inskripziua ere bazakan: "Plaza de la Constitución". Arkua gabaz ere ikusteko basuak edo suontziak jarri zitxuen: "*40 vasos comprados pª luminarias con diversos colores*". Plazan tapizak eta jarlekuak ere jarri zitxuen.

Handik hiru egunetara, apirillaren 9xan, Konstituziua zin egin zan, baitxa Udalbatza berrirako hautagai edo kandidatuak aukeratu ere, *pª proceder a la elección del Ayuntamiento Constitucional*.

Domekia zanez, eleizan egin zan, Komenduan. Goizeko 9etarako bertan zozen mutrikuar gehixenak. Kontuan hartu bihar degu, gaur egungo parrokixa amaitxu gabe zauanez haura erabiltzen zala parrokitzat, "*al Convento de Monjas de esta villa que sirbe de Parroquia interina (...) a la publicación y juramento de la referida Constitucion*".

Oroitarrixa edo lapida

Herriko plazari izena aldatziaz gaiñera, plaza hortan Konstituziuaren aldeko lapida edo oroitarrixa jartzeko agintzen zoan Espaiñiako kortiek, 1812ko abuztuaren 14an, emandako dekretu batek: *Que se llame "Plaza de la Constitución" la principal de los pueblos en que esta se publique (...) y que se exprese así en una lápida erigida en la misma*. 1821eko ilbeltzaren 7xan Mutrikuko udalbatzak lapida bat jartzia erabaki zoan "*por no estar aun colocada la Lapida constitucional en esta villa ha acordado el Aiuntamiento ponerla levantando al efecto un Arco triunfal y adornado la Plaza constitucional*".

Manuel Vicente Laka arkitektuaren zuzendaritzapian, jorrail eta garagarril bitxartian egin zitxuen lanak. Ideia egitxeko, monumentuaren harri haundixa karriatzeko, jorraillaren 4an, hiru behi-buztarri bihar izan zitxuen, *tres yuntas de vacas llevando la gran piedra que se destinó para Lapida de la Constitución*. Harri haundi haren azpixan beste zazpi harlandu jarri zitxuen. Harri haundixan Eibarren funditxutako kobrezko letrak jarri zitxuen.

1821eko madalenetan inauguratu zan Konstituzio-plazako oroitarrixa edo lapida. Lapidaren aurrian apropos jarritxako arkua erramu adarrez apaindu zeuen, *los laureles del arco triunfal*.

Garagarillaren 22xa izan zan egun haundixa. Zezenketak egon ziran eta hiru gabetan plazia, arkua eta "lapida" argitxu zitxuen, hortarako estropuak, eta farolak (kandelak) eta basuak erabillitxa.

"¡Muera la constitución!"

Mutrikun, isillian bada ere, asko ziran Konstituziuaren aurkakuak. Horren erakusgarri, hona ekarriko degun auzi edo pleito bat.

1821eko abenduaren 24ko illun-





tzian, Mutrikuko bi arrantzale gazte, Konstituziuaren kontrako abestixak kantatzen zozela-eta, Konstituzio Plazako udaletxeko kartzelara eruan zitxuan Jose Anton Bustindui alkatiak.

Bertan, deklaraziua hartu zixuen, baitxa eurokin batera zabiltzen beste hiru mariñeli ere.

Alkatiak berak halaixe deklaratu zoan eskribauaren aurrian, "*estavan cantando unos mozos el estrivillo de fuera la Constitución*". Gaztiek 18 urte zakezen: Jose Ignacio Iraola eta Santiago Zulaika.

Azaldu zeuen itsasorako asmotan bajatu zirala moillara goizian eta itsaso txarra zauanez egun guztian egon zirala taberna baten, "*todo el día en la taberna de chacolí, que hay en la casa del muelle, sin ir a casa ni a comer*". Eurokin batera, Felipe Lizundia, Julian Agirrebengoa eta Jose Gaspar Ituarte maiñel gaztiak zozen (18-21 urtekuak).

Illuntzian, txatxol ederrarekin, goiko plazara juan ziran. Hola deklaratu zoan Zulaikak, "*poco antes de obscurecer han subido todos al portal de la Plaza maior en donde han estado cantando, sin saver lo que se decían por estar vastante vevidos*".

Alkoholari errua bota, eta gaiñeratu zeuen –ze esango zeuen!– Konstituziuaren aldekuak zirala: "*el declarante y todos los demas dichos compañeros son los más apasionados y amantes de la constitución*". Alkatiak, Bergarako epailliaren aurrian, bere herriko mariñelen alde egin zoan: "*son unos pobres muy constitucionales, sin que hayan dado el menor motivo de queja*".

Handik hiru egunetara, 1821eko abenduaren 27xan, basarekin zikinduta agertu zan konstituzioko lapida edo oroitarrixa. Jose Txurrukak azaldu zoan hamaiketako mezatatik ertendakuan topau zoala zikinduta: "*el escandaloso hecho de hallarsse ensuciada la Lapida constitucional de esta villa y con particularidad su inscripacion de letras de bronce*".

Mariñelen kantekin zerikusixa ete zakan argitxu nahixan, herritxar askori hartu zixuen deklaraziua: guardiak, tabernarixak, auzokuak... Lekuko edo testigo gehixenek antzekua esan zeuen: "*no sabe quien pudo embarrar la Lápida de la Constitución*". Beraz, kontua ez zan argitxu.

Deklarazio gehixo hartu ziran, azken egunetako gora-beheren berri izateko, eta abenduaren 24ko kantak zirala--eta, halaixe deklaratu zoan Santiago Aranburu aguazillak: "*oyó y vió que dos mozos marineros embriagados cantaban muera la Constitución en terminos que no podían pronunciar clararamente dhas expresiones por su estado fatal de embriaguez*". Horixe aitxortu zoan Zulaikak ere bigarren deklaraziuan: "*estubo en el portal de la plaza mayor de la villa de Motrico, con otros varios compañeros, cantando entre otras cosas, fuera o muera la Constitución*".

1822ko ilbeltzaren 28xan epaixa aillegatu zan Bergaratik. Ardaua ez ei zan aitzakixa gauzak bihar dan bezela egitxeko, izan ere, *cantares subversibos de la constitucion, en lo que escandalizaron al publico caiusando mui mal ejemplo*.

Hiruna dukat eta kostak pagatu bihar izan zitxuen Zulaikak eta Iraolak. Epaixan, gogoratu zixuen, "*que se guarden otra vez de proferir expresiones ofensivas a la Constitucion política de la Monarquia*".

Konstituziuaren alde ala kontra?

Dokumentu ofizialek jasotzen deuena irakurri ezkero, ematen deu mutrikuar guztiek poz-pozik onartu zeuela Cádizko Konstituziua. Baiña, ekarri degun auzi horren modukuek garbi erakusten digue, Mutrikun aldekuak eta kontrakuak zozela.

1812ko Konstituziuak euskal foruak eta eskubide historikuak baztertzen zitxuan: armadara kintorik ez bialtzia, kostaldian aduanarik ez eukitzia...

Hori dala-eta Euskal Herrixan askok ez zeuen begi onez ikusi. Konstituziuak uniformidadia ekarri zoan estatu osora eta Foru Aldundixak poliki-poliki funtziorik gabe geratzia. Gaiñera, eleizaren zati haundixena ere kontra agertu zan.

Momentu historiko hontan dago ideologixa karlistaren jatorrixa. Orduan, errealistak (absolutistak) eta liberalak (konstituzionalistak) ziran, eta aurrerago, karlistak (foruzaliak) eta liberalak (batzuk antiklerikalak) izango ziran.

Josu Larrañaga Arrieta



Plaza de la Constitución, 1821 urtean
Beheko plaza, gaur egun

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra.
de Begoña
EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

Bukatu da aurtengo errugbi denboraldia

Zubiren omenaldiarekin eman diote bukaera aurtengo denboraldiari. Ligako hainbat partidu eta aparteko topaketa jokatu ondoren datorren denboraldiari begira jarri dira errugbi-zaleak.

Mutrikuko Errugbi Taldeak eman dio bukaera aurtengo denboraldiari; nola ez, hain maitea izan zuten eta Mutrikun errugbiaren sustatzaile izan zen *Jesus Mari Zubikarai* omenduz. Aurten, Baztan eta Ordiziko taldeak etorri zaizkigu omenaldira. Lehendabizi, 10 urte azpiko taldeek eta jarraian 12 azpiko eta 14 azpiko jokalariek nahasturik jokatu zuten zelai osoan.

Jada, lau urte bete dituzte topaketak egiten. Aurten hiru mailatan izan dituzte taldeak: 10 azpikoak, 12 azpikoak eta 14 azpikoak. Eta ligako hainbat partidu eta topaketa izan dituzte. Aipatzekoa da aurtengo martxoan Baztan taldekoekin egin duten topaketa. Lekaroz herrian bildu ziren bi taldeetako jokalari, entrenatzaile eta gurasoak. Bertan, errugbiaz gozatzeko tarteaz gain, herri kirolak egiteko aukera ere izan zuten. Lekarozen gaua pasatu, eta hurrengo egunean mendi buelta egiteko tartea hartu zuten: "*Horrelako topaketak aberasgarriak izateaz gain, umeen arteko harremanak sendotzeko baliagarriak dira; hori zen gure helburua*" dio taldeko entrenatzailea den Alex Barrenetxeak. Horrez gain, beste hainbat topaketa ere izan dituzte: Ordizian, Donostiako Kontxan, Berritxun…

Datorren urteari begira hiru maila horietan taldeak mantentzea aurreikusten da. Horretarako izugarrizko lana egiten ari dira errugbi taldeko bultzatzaileak, kirol hau ezagutzera eman eta umeek probatu dezaten. Hain zuzen ere, datorren ikasturtean lehen aldiz, eskola kirolaren barruan izango da errugbia. Aukera bikaina herriko ume eta gaztetxoek kirol hau zer den ezagutu eta gozatzeko. Ondarroan, aldiz, hirugarren ikasturtea bete dute errugbia eskaintzen. Eta, aukera paregabea izan dute bertakoek Mutrikura gerturatu eta parte hartzeko.

Horrez gain, Mutrikuko, Ondarruko eta Debako ikastetxeetan ere errugbiari eskainitako saioekin bultzadatxo bat eman nahi zaio kirol honi. Eta, ekainaren 7an, ikasleek ikasitakoa erakusteko asmoz San Miguel zelaian *Rugby-Tug* Topaketa izan zuten. Bertara, Debako Luzaro ikastetxeko, Ondarruko Zaldupe ikastetxeko, San Miguel ikastetxeko eta Mutrikuko Goizeko Izarra ikastetxeko ikasleak bildu ziren, hain zuzen ere 5. eta 6. mailako ikasleak. Topaketan giro bikaina izan zuten, eta, nola ez, bukaera hirugarren denborarekin eman zioten.

Mutrikuko Rugbi Taldeko lagunek herriko zein inguruko ume eta gazteak animatzen dituzte errugbia praktikatzera, beti ere helburu nagusia kirola egin eta ongi pasatzea dela azpimarratuz.





KAIXO ORGANIKOA!

Izenburu honetxekin egin deu kanpaiña Bilboko udalak hondakiñ organikuaren bilketia hiri osora zabaldu nahi doala eta. Edukiontzi/kontenedore marroiak ipintzerakuan, orri informatibuan hauxe dio: "…gure zabor poltsa aztertzen badugu, pisuaren %40 konposta lortzeko birziklatu daitezkeen hondakin organikoak direla konturatuko gara". Halaxe da, hori kalkulatuta dago gitxi gorabehera. Horixe da guk aspalditxik, beti, esan deguna. Baiña Mutrikun, 2018ko urtarrila-otsaileko datuak begiratuta "Biohondakina"edo organikuaren birziklatze tasa hauxe da: %20,81 (%40tik urruti).

Birziklatzen goraka goazela dirudien arren, gauza garrantzitsu batzuetan KALE egiten ari gera, datuak ikusitxa, eta puntu makalenetako bat edukiontzi MARROIETAN dakagu.

Eta ez gaitzatela engaiña: beirak, kartoi/paperak, eta ontzi ariñak/plastikuak dira onduen identifikatu eta errespetatzen ditxugunak; gainera, urte askotxo dira edukiontzi berde, urdin eta horixetan apartatzen ikasi gendula (nahiz eta horretan ere gaizki ipinitxa eta ixa beti gaiñezka dagozen). Berritxasuna marroiak eta grisak dira, baiña bakoitzian ipini biharrekua ondo bereiztiak lanak ematen diguzela ematen deu, oraindik orain.

Guazen ba GAKUA dan marroia ikustera:

- Janari hondar danak ONDO-ONDO batuz gero asko aurreratuko genduke birziklatze tasan.
- Marroian organikua sartu bakar-bakarrik, ez da kasualidadia edukiontzixak itxitxa egotia.
- Boltsa degradagarrixetan sartu, hortarako dauzkagu debaldeko bi makiña banatzaile.
- Balde marroiak ditxugu etxe guztixetan. Erdialderaiño bete, txartela hartu eta edukiontzira!
- Hola egiteak suposatuko leuke beste gai guztiak garbi daudela janari arrastorik gabe, beste gaixen prozesamenduak ere erraztuz.
- Hondakiñ ezegokixa dakan edukiontzi bat, birziklatzeko, galdutako edukiontzia bat da.
- Organikua elementu BIZIXA da, eta pringatu ez ezik, dana hondatzen deu, bai paperak, bai errefuxak… dana! Tratamendu Mekaniko Biologiko zentruan ia urtero dakae arazoa, eta gaixotu ere egin izan dira langilliak, hondakiñen artian gai organikua egon eta kutsatu egin diralako.

Zein da arazua? Ez degu sinisten daukan garrantzixan? Birziklatzia ipuiña dala pentsatzen degu oraindik? Erakundiak ondo gestionatzen deuen ala ez zalantzatan gabiltz? Zirrikitxu gehixegi dago ondo egin nahi ez doanak, berak nahi doan moduan bazter batian botata lagatzeko? Gaizki egitxen doanak ez deu pentsatzen norbaitxek kargu hartuko dionik? Oraindik ez dakigu gaixak zehazki zela selekzionatzen diran? Gustora hartuko ditxugu zure aldetik galderarik, iritzirik edo proposamenik baldin badakazu, email honen bidez: **mutrikuzerozabor@gmail.com**

DANOK arreta jarri eta ONDO egin daigun KEIÑU arduratsu hau: Etxietan, tabernetan, jantokixetan, ikastetxietan, toki publikuetan, danetan janari hondakiñ guztixak sartu poto marroietan, edukiontzi marroietan edo konpostatu daiguzen. Geure onerako eta ingurumena zaintzeko, seme-alabak eskertuko digue.







JANARI HONDARRAK ETA LURRETIK DATOZEN GAI NATURALAK... EDUKIONTZI MARROIETAN IPINI!

HONDAKIÑ DANAK BATERA NAHASTATUTAKO ZAKAR BOLTSARIK EZ!!!

ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK



NAHIA

Zorionak etxeko danon partez eta batez ere Aimar, Eñaut eta Markelek



ANDER eta EIDER

Zorionak bikote! Ondo ondo pasatu zuen urtebetetzean.
Matxo handi bana kotxe-bidaia lagunen partez.





BEGOÑA eta KLARITA

Zorionak bioi! Familia osoaren partez besarkada eta matxo handi bat. Egun eder bat izan dezazuela.



ENAITZ

Gure kirolari txapeldunari Zorionak etxeko denon izenean eta bereziki Ibai, Eber, Adei eta Danelen partez!



ESTI

Zorionak ama! Zure etxeko sardina eta sardinatxoen partez.



MARKEL

Ekainaren 17ko partez, Zorionak denon izenean eta bereziki Aimar, Eñaut eta Nahiaren partez!



ANER

Uztailean urteak betetzen dituzu-eta, zorionak txapeldun! Ongi pasa zure lagun eta familiarekin.



LEA

Zoriiooonak etxeko sorgin txikiari!!! Alai eta bixi, horrela segi! Muxu handi bat Nora eta Malenen partez!



M. ANGELES KATXO

San Pedro Txiki egunean 87 muxu handi zuretzat.



AUPA NESKAK!

Hala ere... TXAPELDUNAK!
AUPA EKIPO!



ADEI

Zorionak amatxo eta aitatxo. Adeitsu hartuko dugu zuen umea gure artean.



XABALA eta TXORDO

Zorionak Olatzko akolitxuei.
"Ad Deum qui laetificat juventútem meam"

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

PERRAS
arrandegia

arratsaldez zabalik
(osteartetik ostiralera)
merkatu plaza
607 92 09 25

Argazki Zaharrak







1971 urtea, Kamiñoberriko zubia



1978 urtea, Kanpeonato lokala

Tente: German Maixua, Leonardo Zenekorta, Jose Mari Muñoz, Juan Cruz Barrenetxea *Felix*, Jose Angel Landa *Perras*, Aitor Lizardi *Kanuto*, Justo Urkiri, Iñaki Ruizpoveda.

Kukulumutxu: Angel Uranga *Maixa*, Joseba Andoni Solupe, Jose Angel Ansola, Xabi Uranga, Jon Iñaki Andonegi *Mutxur*, Jose Antonio Arrizabalaga, Javier Zabala *Xabala* eta Jose Ignacio Bermudez.

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ANSORREGI oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

www.kalaputxi.eus/**botikak**

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

EKAINA		UZTAILA	
22tik 24ra	Amaia Zalduegi	1ean	Lon Apraiz
25etik 28ra	Lon Apraiz	2tik 5era	Amaia Zalduegi
29 eta 30	Lasuen Elezgarai	6tik 8ra	Hiart Burgoa
		zapatu (8) goizean, Lon Apraiz	
		9tik 12ra	Lasuen Elezgarai
		13tik 15era	Lon Apraiz
		16tik 19ra	Hiart Burgoa
		20tik 22ra	Amaia Zalduegi
		zapatu (21) goizean, Lasuen-Elezgarai	
		23etik 26ra	Lon Apraiz
		27tik 29ra	Lasuen-Elezgarai

Gauetan, egunero (22:00-00:00):
Pilar Etxeberria Botika
Errosario kalea 26, Elgoibar

Gauetan, egunero (22:00-09:00):
Idoia Lafuente Botika
Sostoatarren kalea 10, Eibar

A G E N D A

ekainak 23, zapatua
SAN JUAN SUA
Musika, dantzak, antzerkia...
Burumendiko zelaian

ekainak 28, eguena
Hitzaldia: Estimulazioa
Alzheimerdunen senideentzat
Mikel Deuna egoitzan, 16:30-20:00

ekainak 29, barixakua
SAN PEDRO BEZPERA
19:00 Poteo musikatua Goiko plazatik moilara
20:00 Kontzertua moilan: Guda Dantza taldea

ekainak 30, zapatua
SAN PEDRO EGUNA
11:30 Ahozko arrain salmenta Lojape zaharrean
14:30 Herri bazkaria Arku Gain soziedadean
19:00 Erromeria

ekainak 30, zapatua
Bandaren udako kontzertua
Parrokian, 23:00etan

uztailak 5, osteguna
Jubilatuen Abesbatzen topaketa
Arratsaldean, komenduan

uztailak 7, zapatua
Akordeoi alardea
Goiko plazan, 23:00etan

uztailak 14, zapatua
Organo eta oboe kontzertua
Parrokian, 20:00etan

MALEN JAIXAK
UZTAILAREN 21etik 25era

MENDI IRTEERAK

uztailak 6, 7 eta 8
Pirinioak:
Taillon (3.144 m) eta inguruak

irailak 9
Ortzaize - Haltzamendi (813 m) -
- Baigura (1.474 m) - Heleta

urriak 14
La Leze - Olano (1082 m) -
- Arbarrain (1.118 m) - Otzaurte

azaroak 18
Araia - Aratz (1.445 m) - Arantzazu

abenduak 2
Ondarroa inguruetan zeharkaldia eta bazkaria

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

abuztuak 10, 18:00etan
anbulatorioan
Gipuzkoako Odol Emaileak

2018ko ESTROPADAK

TRAINERUAK

uztailak 7
ARC-2 Liga. Yurrita Group bandera

uztailak 11
Gipuzkoako Txapelketa

egitarauak eta deialdiak: **aldizkaria@kalaputxi.eus** edota **whatsappa 635748393**

www.kalaputxi.eus/agenda

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268



pinpirin

ongizate eta estetika







reflexologia
masajeak
presoterapia
pedikura
manikura
depilazioak
aurpegiko tratamenduak
gorputzeko tratamenduak
...eta gehiago

943 02 91 34 - 650 341 768
Barrenkale 9, behea · Mutriku

EROSI BERTAN ZUK EGITEN DUZU MUTRIKU

bertanmutriku.com

bertan
mutrikuko merkatarien elkartea

facebook.com/BertanMutriku

bertan · Mutrikuko Udala · EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO



LOREA
Gourmet

DESDE 1867



HEGALUZEA OLIBA OLIOTAN



HEGALUZEA ESKABETXEAN

www.loreagourmet.com